



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

INFORMATIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE INFORMÁTICA

Informatika Fakultatea MEMORIA 2020

```
.then(({ data, headers }) => {
  this.cars = this.cars.concat(data);
  $state.loaded();
  this.$store.commit('cars/totals', data);
});

const array = [
  keys.map((item) => {
    array.push(car._source.meta[item][0]);
  })
];

return array
},
getKeyByValueImage (value) {
  if (value) {
    const object = this.manufactures;
    return obj.id === value.parent;
  }
  if (object.length >= 1) {
    return object[0].acf.car_manufacture;
  }
}

return false
},
getKeyByValueImageLocation (value) {
  if (value) {
    const object = this.locations;
    return obj.id === value[0];
  }
  if (object.length >= 1) {
    return object[0].name;
  }
}

return false
},
```



Hitzaurrea



Alexander Mendiburu
Informatika
Fakultateko dekanoa

“2020: malko eta txaloen urtea”

Zoritxarrez, COVID-19a 2020. urteko protagonista izan da. Pandemiak muturrean gogor jo gaitu, baina behin eta berriz altxatzeko prest gaudela erakutsi dugu. Gizarte bezala badugu oraindik zer ikasi, baina gera gaitezen ondo egindakoarekin, eta gogoan izan dezagun oker egindakoak hurrengoan ez errepikatzeko. Aipamen berezia eta txalo-zaparrada Informatika Fakultatea osatzen dugun guztiontzat: ikasle, irakasle, ikertzaile, administrazio langileak, eta garbitzaileak. Denon aparteko ahaleginari esker, COVID-19aren eragin negatiboa minimizatu dugu, 2019/2020 ikasturtea ondo bukatuz, eta 2020/2021 “ia normaltasunez” abiatuz.

Utz dezagun COVID-19a alde batera, eta azter dezagun urteak emandakoa, oso emankorra izan da eta: Informatika arloko graduak eta masterrek ibilbide sendoa dute dagoeneko, eta gainera nazioartekotze eta IKASKETA DUALAREN KALITATE zigilu berriein. Informatika arloko profesionalen beharra gero eta nabariagoa da, eta hori gure ikasketek duten enplegu-tasan ere nabarmentzen da: ia %100a. Honekin lotuta, eta azken urteetako joerarekin jarraituz, ikasle kopuruak gora egin du berriz ere. Bestalde, adimen artifizialak izugarritzko protagonismoa hartu du azken urteotan eta, Unibasq-en oniritzia jaso ondoren, prest dugu dena 2020ko irailean abiatu den adimen artifizialeko graduak lehengo promozioari ongi-etorria emateko.

i Ikur hau ikustean informazio gehiago duzu

Gure ikasleek (eta Fakultateak) harreman estua behar dute erakunde publiko eta enprekin, eta aurtun 42 enpresa berri eskaini dituzte praktika nahiz gradu eta master amaierako lanak gure ikasleentzat. Aukera bikaina lan-munduarekin lehen harremana izateko. Ildo honetatik, bi unibertsitate-enpresa gela berri ditugu. Batetik, Sherpa.ai enpresarekin, adimen artifizialaren arloko erreferentzia dena, eta bestetik Multiverse Computing enpresarekin, konputazio kuantikoaren atea zabalduko dizkiguna. Gainera, datuen prozesamendurako gunea estreinatu dugu, irakaskuntza eta ikerkuntzarako baliabide bikaina!

Maiz gogorarazten dugun bezala, ikerkuntza Fakultatearen nortasun-ezaugarria da: ezagutza berria sortzeko, berrikuntza gizartera ekartzeko, eta irakaskuntza berritzeko. Gure ikerkuntza taldeak gogor aritu dira 2020. urte honetan, eta horren isla, abian (izan) ditugun ia 100 ikerkuntza proiektuak, europarrak, nazionalak eta eskualdekoak, 7M€ko aurrekontua osatzen dutenak (iaz baino %22 gehiago).

Jarraian dituzun ataletan, 2020. urtean fakultatean egindako lana eta ekintza nagusien laburpena topatuko duzu. Informatika gara, informatika eta adimen artifiziala bizi ditugu, zatoz gurekin etorkizuna aldatzera! Eta hori guztia, EHUko goiburua jarraituz: “Eman ta zabal zazu”.

Giza baliabideak **i**

Gobernu organoak



Ikasleak

Graduko ikasleak 301 307 608

Master ikasleak 142 Doktoradutza ikasleak 132

Pertsonala

Irakasleak* 3 100 103 Ikertzaileak 37 23 60 Admin. eta zerbitzuak 22

*Errelebo kontratuak barne

Baliabide orokorrak

- 24 Laborategi
- 455 konputagailu (CPU, GPU)
- Datu-Prozesaketa Gunea
- Errealitate Birtualeko laborategia
- 5 Mintegi
- 2 Bideokonferentzia gela
- Itzulpenerako sistema
- Kopia-denda
- Taberna+Jangela



Baliabide ekonomikoak **i**

Gastu deszentralizatu

Funtzionamendua 125.899 €

Inbertsioak 126.018 €

Ikerkuntza proiektuak

Europa 1.548.364 € 505.006 €

Euskal Herria 3.313.160 € 1.081.086 €

Estatua 1.875.805 € 516.413 €

Kontratuak 310.530 € 102.887 €

Memoria honetan ekonomia eta ikerketari dagokionez 2020 urtea hartu da kontuan baina irakaskuntzari dagokionez 2019/2020 urtea

Irakaskuntza

Proiektua 2019/20


- Ikaskuntza eta ebaluazio jarraitua
- Proiektu edo problemetan oinarritutako metodologia
- Eleaniztasuna
- Banakako aholkularitza-programa
- Prestakuntza-programa
- Berdinen arteko tutoretza

882



Ikasleak

3



Espezialitateak

Unibasq-ek emandako 3 kalitate-zigilu lortu dira:

- Nazioartekotzea: II graduan eta HAP masterrean
- Ikasketa Duala: MISE masterrean



Hizkuntzak

3



Tituludun berriak



98

Masterrak

4

Hainbat datu eta xehetasun:

- Graduoko 1. mailako zenbait parametroren eboluzioa.
- Kalitate zigiluak.
- Matrikulazioa ikasgaietan.
- Egutegia.
- Graduondoko tituluak.
- Ikastaro osagarriak...

Masterrak (M) eta doktorego programak (DP)

- Konputazio Ingeniaritza eta Sistema Adimentsuak (KISA) M.
- Sistema Txertatuen Ingeniaritza (MISE) M.
- Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua M.
- Erasmus Mundus - Language and Communication Technology M.
- Informatika Ingeniaritza DP.
- Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua DP.

Ikasleak erakartzea

LH, DBH eta Batxilergoko ikasleei informatika ikasketak zer diren azaltzeko ahalegin berezia egiten dugu.

2019/2020 ikasturtean 1.200 ikasle baino gehiagorekin lan egin dugu.

Martxotik aurrera egiten diren ekimen batzuk bertan behera gelditu ziren.

JolasMATIKA

Hitzaldiak zentroetan

Orientazio Azoka

Ate Irekiak

Batxilergoko ikasleen bisita

| | | | | | | | |
|-------|---|-------|----|-------|----|-------|----|
| 00000 | 0 | 01000 | 8 | 10000 | 16 | 11000 | 24 |
| 00001 | 1 | 01001 | 9 | 10001 | 17 | 11001 | 25 |
| 00010 | 2 | 01010 | 10 | 10010 | 18 | 11010 | 26 |
| 00011 | 3 | 01011 | 11 | 10011 | 19 | 11011 | 27 |
| 00100 | 4 | 01100 | 12 | 10100 | 20 | 11100 | 28 |
| 00101 | 5 | 01101 | 13 | 10101 | 21 | 11101 | 29 |
| 00110 | 6 | 01110 | 14 | 10110 | 22 | 11110 | 30 |
| 00111 | 7 | 01111 | 15 | 10111 | 23 | 11111 | 31 |



Ikerkuntza

14



Tesiak

149

Argitalpenak

Ikerketa taldeak

17



2,2

7,0

milioi batez beste urteko

milioi indarrean

Ikerketa proiektuetan eta kontratuetan

95

guztira

Ikertzaile nagusiak



39

"Adimen Artifizialean egiten den ikerketa zientziako beste alor batzuetako aurrerapenen oinarri da"

Jose Antonio Lozano

Nazioartekotasuna

7

Atzerrian Fakultatean

Ikerketa-egonaldiak
(COVID-19aren eragina nabarmena izan da)

Ikasleen egonaldiak

Atzerrira Fakultatera

40



Enpresak

Eskaintza zabala praktikak egiteko:
161tik 89 burutu ziren

azken urteetan gorantz doan eskaintza

Harreman estua inguruko enpreekin:
184 enpresa
(42 berriak)

%96ko enplegu-tasa.
Ikasketak amaitu eta 2 hilabetera "batez beste" lanean ari dira

34 gradu eta master amaierako lan enpreetan

Fakultateko

Unibertsitate-Enpresa Gelak: 5

(2020 urteko finantziazioa: 49.587€)



Euskara

EUSKARALDIA

Informatikako fakultatean
Difusioa@Adimen Artifiziala
eta Euskal Wikipedia

Euskararen eguna

“Euskara eta Informatika” bideo lehiaketa
“Euskara eta Adimen Artifiziala” mahai-ingurua

EHU-Wikipedia 2020

Matrikula kanpaina

Zergatik egin matrikula euskara taldean?

Egunean behin programazio lehiaketa



Dibulgazioa

Prensa: 75 - Irratia_Telebista: 14 - Web: 132

Sariak eta aipamenak **10**

Ikasle eta Ikasle Elkarteen parte hartzeak

#CodeFight txapelketa

Ate irekiak

Berdinen arteko tutoretza (BAT)

InfoPote-a / InforEguna

Ikasleen beharrak kudeatu:

- Taldeko ikasketa gela
- Jantokia

“Edozein egoeratan laguntzeko prest”

